

1.- Definitu itzazu ondoko kontzeptuak:

(puntu 1)

a) *Estamentu-gizartea*

b) *Monarkia parlamentarioa*

2.- Erantzun ondoko galderi:

(puntu 1)

a) *Idatzi itzazu 5 Ozeanoren izenak*

b) *Idatzi itzazu Atlantikoan itsasoratzen diren Penintsulako ibaien izenak*

3.-Idatz ezazu ondoko estatuen *kontinentea eta hemisferioa*: **(puntu 1)**

Estatua	Kontinentea	Hemisferioa
KANADA		
MALAYSIA		
ANGOLA		
ARGENTINA		

4.- Idatz ezazu ondoko hirien *estatua eta hizkuntza*: **(puntu 1)**

Hiria	Estatua	Hizkuntza
BUDAPEST		
ASUNCIÓN		
HONG-KONG		
SIDNEY		

5.-Lotu itzazu ondoko bi zutabeak: **(puntu 1)**

- 1.- García Lorca
- 2.- Diego de Velázquez
- 3.- Antoni Gaudí
- 4.- S. Ramón y Cajal
- 5.- Jorge Oteiza
- 6.- Espoz y Mina

- A).- Nafar gerrillaria
- B).- Arkitektoa
- C).- Eskultorea
- D).- Poeta
- E).- Margolaria
- F).- Medikua

ERANTZUNAK

- 1.:.....D
- 2.:
- 3.:
- 4.:
- 5.:
- 6.:

6.- Idatz ezazu dakizuna ondokoaren inguruan: “*ESPAINIAREN AURKIKUNTZA GEOGRAFIKO HANDIAK XVI. MENDEAN*” (Herrialdeak, pertsonaiak, etab.):

(puntu 1)

7.- Azaldu ezazu zer izan zen Espainiako “*TRANTSIZIOA*” (1975-1982). Aipatu itzazu garai horretan nabarmendu ziren pertsonetako batzuk. **(2 puntu)**

8.- Testua: “*Kosovoko independentzia*”. **(2 puntu)**

Kremlinak “egintza ez-legitimotzat” jo du gaur Kosovoko agintariak independentzia deklarazio aldebakarrekoa egin izana eta “eraikitzailetzat” jo du Serbiaren jokaera.

“Nazioarteko zuzenbidearen ikuspegitik, Kosovoko independentzia de facto aldebakarrekotasunez deklaratu izana egintza ez-legitimoa da” esan zuen Kremlinako eledun-ondoko Dimitri Peskovek, errusiako agentziek aipatuta.

“Errusiak, nola ez, ahalik eta nazioarteko mekanismo gehien mugiaraziko ditu Kosovoren sezesioa ekiditeko, batez ere NBE eta honen Segurtasun Kontseilua (...) Zein arazo sortzen ahal ditu etorkizunean Kosovoren independentziaren aldebakarreko deklarazioak?

Errusiaren arabera, Kosovoren independentziak beste eskualdeen independentzia nahietarako “Pandoraren kutxa” irekitzea ekarriko du, bai Errusiaren atzealdeko zenbait eskualdetan, (Abjasia, Hego Osetia....) bai Espainian, Frantzia edo Italian.

La Vanguardia, 2008 otsailaren 17an.

a) *Zein herrialdetatik banandu zen Kosovo 2008ko otsailaren 17an? Zein arazo ekartzen ahal dizkio Europari Kosovoren aldebakarreko independentzia deklarazioak?*

b) Zein erakundek ordezkatu zuen NBE Balkanetako gatazkan?

PUNTUAZIOA, GUZTIRA: 10 PUNTU